


## ISEI - IVEI

**Rs7. ZIENTZIAN, MATEMATIKAN ETA  
TEKNOLOGIAN TITULUDUNAK**





**ISEI•IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

---

**Edizioa: 2011ko ekaina**  
**© ISEI•IVEIk argiraratua**

**ISEI•IVEIK ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea  
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo  
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84  
info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**KOORDINATZAILEA**

Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

Eduardo Ubieta



## **AIPATZEN DEN URTEAN ZIENTZIETAN, MATEMATIKAN ETA TEKNOLOGIAN HIRUGARREN MAILAKO TITULUA (CINE 5A, 5B ETA 6) <sup>1</sup>LORTU DUEN 20-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN TASA (TITULUDUNAK MILA BIZTANLEKO).**

**Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Goi mailako hezkuntzako Matematikan, Zientzian eta Teknologian 20-29 urte bitarteko tituludunen tasa orokorra (mila biztanleko) % 15 handitzea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desoreka murriztea.**

Europako eta munduko garapen ekonomikoa sustatzeko asmoz eta Europak ikerketa zientifikoan duen presentzia gehitzeko asmoz, Europar Batasunak ezinbestekotzat jo du zientzia eta teknika ikasketetako matrikulak gehitzea eta ikasketa horietako tituludunak ikerketan hein handiagoan aritu daitezzen bultzatzea.

Europar Batasunak, era berean, ikasketa zientifiko eta teknologikoetan gizonezko eta emakumezko tituludunen artean dagoen desoreka berdintzea helburutzat finkatu du. Ikasketa horiek aukeratu eta bukatzen dituzten emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa da.

2009. urtean, EB osatzen zuten 27 herrialdeetan Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunen tasaren batez bestekoa % 14,3 zen. Hala ere, herrialde ezberdinen arteko aldea oso handia da, Zipreko % 4,6tik Frantziako % 20,2rako, tartean Hungaria (% 7,5), Espainia (% 12,5), Danimarka (% 15,2) eta Finlandia (% 19,0) direlarik. EBko 27 herrialdeetako Zientzian eta Teknologian tituludunen tasa orokorra 2000-2009 aldian zehar igotzen joan den arren, 2005-2009 aldian herrialde horietako seitan tasa jaitsi egin da. Irlandaren kasuan (% 24,5etik % 17,2ra) jaitsiera nabarmena izan da.

Euskadin<sup>2</sup> 2000-2009 aldian adierazle honen bilakaera etengabea eta positiboa ikusten da 2006ra arte, Zientzian, Matematikan, eta Teknologian tituludunen tasa 2000ko % 20,2tik 2006ko % 27,5era handitu zelarik, nahiz eta azken hiru urteetan gorabehera txiki batzuk izan. Izan ere, 2005-2009 aldian tasa berdina izan da, % 26,6. Hala eta guztiz ere, Euskadiko tasa EBko herrialde guztietako tasarik altuenetakoa da, ziur asko Lanbide Heziketa Teknologikoak (CINE 5B) Euskadin duen garrantziaren ondorioz.

Urteetan zehar egiaztatzen da Euskadin Matematikan, Zientzietan eta Teknologian tituludunen tasarik altuenak Goi Mailako Lanbide Heziketari dagozkiola (% 11,5), gero hurrenez hurren lizentziaturak (% 7,3), diplomaturak (% 6,5), doktoregoak (% 0,8) eta masterrak (% 0,5) datoz. Datu horietatik ikerketa gehiago bultzatzearen garrantzia ondorioztatzen da.

<sup>1</sup> CINE 5A maila unibertsitateko tituluei dagokie, 5B maila goi mailako heziketa zikloei, eta 6 maila doktoregoei eta masterrei

<sup>2</sup> Euskadiko datuetan 2003-04 ikasturtera arte UPV/EHUko doktorego-tesiak bakarrik hartu dira kontuan. 2004-05 ikasturteetik aurrera Mondragon eta Deustuko unibertsitateetako doktorego-tesiak sartu dira. 2006-07 ikasturteetik aurrera Zientzian, Matematikan eta Teknologian masterrak sartu dira. Ikasturte guztietan biztanleria eguneratua erabili da, ikasturte bakoitzari zegokiona.



Sexuaren araberako banaketak ere datu argigarriak eskaintzen ditu. 2009. urtean bertan Zientzietan, Matematikan eta Teknologian tituludunen tasa emakumezkoen artean % 15,9 zen, gizonezkoen artekoa (% 36,9) baino 21,0 puntu baxuagoa. Honek esan nahi du, adierazlea oso onuragarria den arren, sexuen arteko ezberdintasunak emakumezkoen artean arlo zientifikoko eta teknologikoko ikasketak bultzatzea eskatzen duela. Hala ere, ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, txikiagoa da sexuaren aldetiko aldea. Izan ere, urte horretan doktoreen tasa emakumezkoen artean % 0,9 izan zen, eta gizonezkoen artean % 0,7.

2008an Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunen tasan alde handiak ikusten da Autonomia Erkidegoen artean (Melillako % 0,9tik Asturiaseko eta Gaztela eta Leoneko % 15,9ra). Urte horretan Espainian unibertsitate mailako tituludunen batez besteko tasa (% 8,0) goi mailako heziketa zikloetan tituludunen tasa (% 3,7) baino handiagoa da. Salbuespena Euskadi da, bi tasak antzerakoak baitira (% 10,2 zikloetan, % 13,8 unibertsitatean). Antzera gertatzen da, baina hein txikiagoan, Gaztela-Mantxan (% 3,2 zikloetan, % 2,9 unibertsitatean), Errioxan (% 4,3 zikloetan, % 5,2 unibertsitatean) eta Balear uharteetan (% 1,1 zikloetan, % 1,5 unibertsitatean).

EBko 27 herrialdeetako Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunen 2009ko tasa (% 14,3) munduko ohiko herrialde boteretsuenetako tasekin konparatzen badugu (adibidez, Estatu Batuak, % 10,3; Japonia, % 14,2), EBko tasa Estatu Batuetakoa baino 4 puntu altuagoa dela ikus daiteke, eta Japoniakoa baino 0,1 puntua altuagoa.

Bai EBko herrialdeetan baita autonomia erkidegoetan eta Euskadin ere, mutilen tasa neskena baino handiagoa izaten da beti, eta joera hori denboran zehar mantentzen da. Horrek esan nahi du joera hori aldatzeko ahaleginak indartu egin behar direla.

Europar Batasuneko herrialdeetan 2000-2010 aldirako goi mailako hezkuntzako Matematikan, Zientzian eta Teknologian 20-29 urte bitarteko tituludunen tasa orokorra (mila biztanleko) % 15 handitzea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desoreka murriztea helburutzat hartu zen. 2009an Europar Batasuneko herrialde guztiek, Irlanda, Erresuma Batua, Frantzia eta Suedia izan ezik, % 15 handitu zuten goi mailako hezkuntzako Matematikan, Zientzian eta Teknologian tituludunen tasa orokorra. Lau herrialde horiek, hain zuzen ere, gainerako herrialdeak baino tasa altuago batetik abiatu zirela hartu behar da kontuan. Europar Batasuneko herrialde guztiek 2010erako helburua betetzea lortu dutenez, helburua ez da mantendu 2010-2020 aldirako.




### Rs7.1 taula eta grafikoa:

**Zientzian, Matematikan eta Teknologian hirugarren mailako titulua (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.**

Ikasturtea	Tituludunen kopuru orokorra	20-29 urteko biztanleen kopurua	TASA MILA BIZTANLEKO		
			OROKORRA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
2000	6.871	339.699	20,2	10,9	29,1
2001	7.921	333.405	23,8	13,3	33,7
2002	7.980	324.688	24,6	13,3	35,3
2003	7.940	314.252	25,3	14,8	35,2
2004	7.811	298.907	26,1	15,1	36,6
2005	7.755	291.695	26,6	15,4	37,2
2006	7.587	275.686	27,5	16,5	38,0
2007	7.240	266.208	27,3	15,8	38,1
2008	7.103	255.286	27,8	16,6	38,6
2009	6.485	243.452	26,6	15,9	36,9

Ikasturte guztietan biztanleria eguneratua erabili da, ikasturte bakoitzari zegokiona. 2003-04 ikasturtera arte UPV/EHUko doktorego-tesiak bakarrik hartu dira kontuan. 2004-05 ikasturteetik aurrera Mondragon eta Deustuko unibertsitateetako doktorego-tesiak sartu dira. 2006-07 ikasturteetik aurrera master tituluak sartu dira.




Iturria: EUSTAT.


**Rs7****Zientzian, Matematikan eta Teknologian  
tituludunak**HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA**Rs7.2 taula eta grafikoa:****Zientzietan eta Teknologian hirugarren mailako tituluak (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera titulu motaren arabera eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.**

	Lanbide Heziketa				Diplomatura				Lizentziatura			
	Sexu biak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea	Sexu biak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea	Sexu biak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea
1999-00	7,7	12,3	2,9	<b>9,4</b>	5,3	8,1	2,4	<b>5,8</b>	6,9	8,3	5,5	<b>2,8</b>
2000-01	11,2	17,5	4,7	<b>12,8</b>	5,0	7,4	2,6	<b>4,8</b>	7,2	8,5	5,8	<b>2,7</b>
2001-02	12,5	19,2	5,3	<b>13,9</b>	4,9	7,2	2,5	<b>4,7</b>	6,9	8,4	5,3	<b>3,1</b>
2002-03	13,5	20,4	6,2	<b>14,2</b>	4,6	6,6	2,6	<b>4,0</b>	6,8	8,0	5,6	<b>2,3</b>
2003-04	13,5	20,3	6,4	<b>13,9</b>	5,2	7,5	2,8	<b>4,7</b>	7,2	8,6	5,7	<b>2,8</b>
2004-05	13,3	20,3	6,0	<b>14,3</b>	5,5	7,9	3,1	<b>4,8</b>	7,4	8,8	5,9	<b>2,8</b>
2005-06	12,5	19,2	5,4	<b>13,8</b>	6,4	8,7	4,0	<b>4,6</b>	8,1	9,4	6,6	<b>2,8</b>
2006-07	12,4	19,4	5,1	<b>14,3</b>	6,2	8,5	3,7	<b>4,9</b>	7,7	9,1	6,2	<b>3,0</b>
2007-08	11,2	17,6	4,5	<b>13,1</b>	7,3	10,3	4,2	<b>6,1</b>	8,2	9,7	6,6	<b>3,1</b>
2008-09	11,5	18,0	4,6	<b>13,4</b>	6,5	9,1	3,9	<b>5,1</b>	7,3	8,7	5,9	<b>2,9</b>

	Master titulua				Doktoregoa			
	Sexu biak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea	Sexu biak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea
1999-00					0,3	0,4	0,2	<b>0,2</b>
2000-01					0,3	0,4	0,3	<b>0,1</b>
2001-02					0,3	0,4	0,2	<b>0,2</b>
2002-03					0,3	0,3	0,3	<b>0,0</b>
2003-04					0,2	0,2	0,1	<b>0,0</b>
2004-05					0,3	0,3	0,3	<b>0,0</b>
2005-06					0,5	0,7	0,4	<b>0,3</b>
2006-07	0,4	0,4	0,4	<b>0,0</b>	0,6	0,7	0,5	<b>0,2</b>
2007-08	0,5	0,7	0,4	<b>0,3</b>	0,6	0,7	0,6	<b>0,1</b>
2008-09	0,5	0,6	0,5	<b>0,1</b>	0,8	0,7	0,9	<b>-0,2</b>



Iturria: EUSTAT.





# Rs7




## Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunak

HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



### Rs7.2.2 grafikoak:

Zientzietan eta Teknologian hirugarren mailako tituluak (CINE 5A, 5B eta 6) duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera titulu motaren arabera eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.




Iturria: EUSTAT.



### Rs7.3 taula eta grafikoak:

**Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko), ikasketa mailaren arabera eta sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2007-08 ikasturtea.**

	Goi mailako hezkuntza			Goi mailako Heziketa Zikloak			Unibertsitateko hezkuntza		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
<b>Espainia</b>	<b>11,6</b>	<b>15,8</b>	<b>7,2</b>	<b>3,7</b>	<b>6,0</b>	<b>1,2</b>	<b>8,0</b>	<b>9,8</b>	<b>6,0</b>
Andaluzia	7,9	11,0	4,7	2,7	4,4	0,8	5,3	6,6	3,9
Aragoi	13,6	18,9	7,8	4,5	7,4	1,3	9,1	11,6	6,5
Asturias	15,9	21,8	9,9	5,9	9,7	2,0	10,0	12,0	7,9
Balearr uharteak	2,6	4,0	1,2	1,1	2,0	0,1	1,5	2,0	1,1
Kanariak	6,3	8,7	3,7	2,4	3,9	0,9	3,9	4,9	2,8
Kantabria	12,6	17,2	7,8	4,8	7,5	2,0	7,8	9,7	5,8
Gaztela eta Leon	15,9	20,8	10,7	4,7	7,4	1,8	11,2	13,4	8,9
Gaztela-Mantxa	6,2	9,1	2,9	3,2	5,2	1,0	2,9	3,9	1,9
Katalunia	11,1	15,8	6,1	3,9	6,3	1,4	7,2	9,4	4,7
Valentziako Erk.	10,2	14,0	6,1	3,2	5,3	0,9	7,1	8,7	5,3
<b>Euskadi*</b>	<b>27,8</b>	<b>38,6</b>	<b>16,6</b>	<b>11,2</b>	<b>17,6</b>	<b>4,5</b>	<b>16,6</b>	<b>21,3</b>	<b>11,7</b>
Extremadura	8,2	11,7	4,6	3,2	5,5	0,8	5,0	6,2	3,8
Galizia	12,0	15,7	8,1	4,8	7,7	1,9	7,1	8,0	6,2
Madril (Erk.)	12,6	16,8	8,3	3,0	4,9	1,0	9,6	11,9	7,3
Murtzia	7,5	10,2	4,5	2,4	3,9	0,8	5,1	6,3	3,7
Nafarroa	15,3	20,0	10,2	5,7	9,6	1,5	9,6	10,4	8,7
Errioxa	9,5	12,8	6,0	4,3	6,2	2,2	5,2	6,6	3,7
Ceuta	3,3	5,6	0,8	2,3	3,8	0,8	0,9	1,8	0,0
Melilla	0,9	1,8	0,0	0,9	1,8	0,0	0,0	0,0	0,0



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua

Iturria: MECeko estatistika bulegoa, EUROSTAT metodologiarekin.

\* Euskadirako EUSTATEN datuak.





Rs7

Zientzian, Matematikan eta Teknologian  
tituludunak


HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA




ISEI-IVEI

### Rs7.3 taula eta grafikoak (jarr.):

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko), ikasketa mailaren arabera eta sexuaren arabera. 2007-08 ikasturtea.



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua.

Iturria: MECeko estatistika bulegoa, EUROSTAT metodologiarekin.

\* Euskadiraiko EUSTATen datuak.

**Rs7****Zientzian, Matematikan eta Teknologian  
tituludunak**HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA**Rs7.4 taula:****Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.**

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>EB (27 herrialde)</b>	<b>10,1 s</b>	<b>10,7 s</b>	<b>11,3 s</b>	<b>12,3 s</b>	<b>12,5 s</b>	<b>13,3</b>	<b>13,5</b>	<b>13,8</b>	<b>14,5</b>	<b>14,3 i</b>
Alemania	8,2	8,0	8,1	8,4	9,0	9,7	10,7	11,4	12,5	13,5
Austria	7,2 i	7,3	7,9	8,2	8,7	9,8	10,8	11,1	11,8	14,0
Belgika	9,7 i	10,1 i	10,5 i	11,0 i	11,2 i	10,9 i	10,6 i	14,0 i	11,6 i	12,0 i
Bulgaria	6,6	7,5	11,7	8,3	8,5	8,6	8,5	8,4	9,1	10,1
Zipre	3,4	3,7	3,8	3,6	4,2	3,6	4,3	4,2	4,0	4,6
Danimarka	11,7	12,2	11,7	12,5	13,8	14,7	13,8	16,4	15,5	15,2
Eslovakia	5,3	7,5	7,8	8,3	9,2	10,2	10,3	11,9	15,0	17,5
Eslovenia	8,9	8,2	9,5	8,7	9,3	9,8	9,5	9,8	10,7	11,3
<b>Espainia</b>	<b>9,9</b>	<b>11,2</b>	<b>11,9</b>	<b>12,6</b>	<b>12,5</b>	<b>11,8</b>	<b>11,5</b>	<b>11,2</b>	<b>11,6</b>	<b>12,5</b>
Estonia	7,8 i	8,3 i	8,0 i	8,8	8,9	12,1	11,2	13,3	11,4	10,8
<b>Euskadi*</b>	<b>20,2</b>	<b>23,8</b>	<b>24,6</b>	<b>25,3</b>	<b>26,1</b>	<b>26,6</b>	<b>27,5</b>	<b>27,3</b>	<b>27,8</b>	<b>26,6</b>
Finlandia	16,0	17,2	17,4	17,4	17,9	18,1	17,9	18,8	24,3	19,0
Frantzia	19,6	20,2	:	22,2	:	22,8	20,7	20,8	20,2	20,2
Grezia	:	:	:	:	8,0	10,1 i	:	8,5	11,2	:
Herbehereak	5,8	6,1	6,6	7,3	7,9	8,6	9,0	8,9	8,8	8,9
Hungaria	4,5	3,7	4,8	4,8	5,1 i	5,1	5,8	6,4	6,1	7,5
Irlanda	24,2	22,9	20,5	24,2	23,1	24,5	21,4	18,7	19,5	17,2
Italia	5,7	6,2	7,4	9,1	10,8	11,6	12,1	11,4	11,3 i	:
Letonia	7,4	7,6	8,1	8,6	9,4	9,8	8,9	9,2	8,8	9,8
Lituania	13,5	14,8	14,6	16,3	17,5	18,9	19,5	18,1	17,8	18,5
Luxenburgo	1,8	:	:	:	:	:	:	:	1,8	:
Malta	3,4	2,7	3,1	3,6	:	3,4	5,0	7,1	6,0	7,0
Polonia	6,6 i	7,6	8,3	9,0	9,4	11,1	13,3	13,9	14,1	14,3
Portugal	6,3	6,6	7,4	8,2	11,0 i	12,0	12,6	18,1	20,7	14,6
Erresuma Batua	18,5	20,0 i	20,2	20,9	18,1	19,2	18,9	18,5	19,2	17,5
Txekiar Errepublika	5,5	5,6	6,0	6,4	7,4	8,2	10,0	12,0	15,0	15,3
Errumania	4,5 i	4,9 i	5,8 i	9,4	9,8	10,3	10,5	11,9	15,2	20,0
Suedia	11,6	12,4	13,3	13,9	15,9 i	14,4	15,1	13,6	13,2	13,0

(:) datua ez dago eskuragarri. (s) EUROSTATen kalkulua. (i) Ikus testu argigarriak :[http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en/strind/innore\\_ir04.htm](http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en/strind/innore_ir04.htm). (u) Zalantzazko edo fidagarritasun txikiko datua.


Iturria: EUROSTAT.

\* Euskadiraiko EUSTATen datuak.



### Rs7.4.1 grafikoa:

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasaren (tituludunak mila biztanleko) bilakaera, Europar Batasuneko herrialdeetan<sup>3</sup>. 2005. eta 2009. urteak.



"2009. urtea" irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua".

Iturria: EUROSTAT.

\* Euskadiraiko EUSTATen datuak.

<sup>3</sup> Grezia, Italia eta Luxenburgo ez daude, datuak falta zaizkielako.

**Rs7****Zientzian, Matematikan eta Teknologian  
tituludunak**HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA**Rs7.5 taula:****Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan sexuaren arabera. 2009. urtea.**

	Sexu biak		Gizonezkoak		Emakumezkoak		Aldea	
<b>EB (27 herrialde)</b>	<b>14,3</b>	<b>(i)</b>	<b>19,2</b>	<b>(i)</b>	<b>9,4</b>	<b>(i)</b>	<b>9,8</b>	<b>(i)</b>
Alemania	13,5		18,3		8,6		9,7	
Austria	14,0		21,1		6,8		14,3	
Belgika	12,0	(i)	17,5	(i)	6,6	(i)	10,9	(i)
Bulgaria	10,1		12,4		7,8		4,6	
Zipre	4,6		5,9		3,4		2,5	
Danimarka	15,2		19,1		11,2		7,9	
Eslovakia	17,5		22,2		12,5		9,7	
Eslovenia	11,3		16,2		6,0		10,2	
<b>Espainia</b>	<b>12,5</b>		<b>17,0</b>		<b>7,8</b>		<b>9,2</b>	
Estonia	10,8		12,8		8,7		4,1	
<b>Euskadi*</b>	<b>26,6</b>		<b>36,9</b>		<b>15,9</b>		<b>21,0</b>	
Finlandia	19,0		26,3		11,3		15,0	
Frantzia	20,2		28,9		11,5		17,4	
Grezia	:		:		:		:	
Herbehereak	8,9		14,2		3,6		10,6	
Hungaria	7,5		10,4		4,4		6,0	
Irlanda	17,2		24,1		10,5		13,6	
Italia	:	(u)	:	(u)	:	(u)	:	(u)
Letonia	9,8		13,1		6,3		6,8	
Lituania	18,5		25,2		11,4		13,8	
Luxenburgo	:		:		:		:	
Malta	7,0		9,4		4,5		4,9	
Polonia	14,3		17,4		11,0		6,4	
Portugal	14,6		18,3		10,8		7,5	
Erresuma Batua	17,5		23,7		11,0		12,7	
Txekiar Errepublika	15,3		20,5		9,8		10,7	
Errumania	20,0		24,9		14,9		10,0	
Suedia	13,0		17,1		8,7		8,4	

(:) datua ez dago eskuragarri. (s) EUROSTATen kalkulua. (i) Ikus testu argigarriak  
[http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en /strind/innore\\_ir04.htm](http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en /strind/innore_ir04.htm). (u) Zalantzak edo fidagarritasun txikiko datua.

Iturria: EUROSTAT.


\* Euskadiraiko EUSTATen datuak.



# Rs7

## Zientzian, Matematikan eta Teknologian tituludunak


HEZKUNTZAKO  
ADIERAZLEEN  
EUSKAL SISTEMA



ISEI-IVEI

### Rs7.5 grafikoa:

Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulua duen 20-29 urte bitarteko biztanleriaren tasa (tituludunak mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeetan sexuaren arabera. 2009. urtea.



“Sexu biak” irizpidearen arabera handienetik txikienera ordenatua.

Iturria: EUROSTAT.

\* Euskadirako EUSTATen datuak.